

PERTSONA EREDUA

DEFINIZIOAK

IKASTOLEN ELKARTEA

BEREIZGARRIA

DEFINIZIOA

EZAUGARRIA

DEFINIZIOA

EUSKALDUNA

Euskal hiztun osoa da, euskal identitate propioa eraiki du eta identitatea eraikitze modu anitzak daudela ulertzen du. Euskara erabiltzeko hautu kontzientea egiten du. Euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna egunerokoan bizi ditu eta horiek bizirik mantentzeko konpromisoa erakusten du. Gure hizkuntzak eta kulturak bizitako gutxitze prozesua ezagutzen du, egoera beretsua bizi duten beste herri-proiektuekiko elkartasun-sentimenduak ditu, eta munduko beste kultura nahiz hizkuntzekiko begirunea eta jakin-mina adierazten ditu. Hizkuntza hegemonikoak ere baliatzen ditu gizarte mailan betetzen duten funtzio sozialez jabetzen delako.

Euskal hiztun osoa (kontzientea, koherentea eta kompetentea)

Euskaraz bizitzea erabaki du kontzienteki eta euskararen erabilera-eremuak zabaltzeko konpromisoa hartu du. Euskarak erregistro ezberdinak badituela ezagutzen du eta hein batean erabiltzen ditu: euskalkiak, hizkera-erregistroak, batua... Hizkuntza ekologiaren begiradatik, ulertzen du hizkuntza eta hizkelki (hizkuntzen aldaera) guztiak munduko errealitatea ezagutzeko ezinbestekoak direla, eta era horretara, norbere burua eta gizarte aberasteko.

Hizkuntzaren, kultura edo identitate aldetik gutxitze-egoeran dauden herrien garapena bermatzeko ikastolan antolatzen diren ekitaldi, ekintza eta proiektuetan parte hartzen du.

Euskal identitatea eta kultura ezagutu eta bizi dituen

Euskal identitatearen eta kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzen ditu (Nazioa-lurraldetasuna, historia, ohiturak...), agerpen/errepresentazio-sinbolikoak ezagutu eta bizi dituelako.

Horrez gain, euskal identitatea eta kultura gordetzeko, biziberritzeko eta zabaltzeko jarrera eta konpromisoa du, euskal kulturako ekimenetan parte hartuz, hura "kontsumituz" eta euskal kultura eta identitatearen inguruko adierazpide berriak sortuz.

Defendatzen du badela euskal identitate soziala eta horren baitan askotariko identitate euskaldunak eraiki daitezkeela, eta horrekin guztiarekin bere sintesi propioa sortzen du.

Eleaniztuna

Beretzat hizkuntzek balio identitarioa eta soziala dute eta mundu-ikuskeran bat jaso eta zabaltzen dute.

Euskara ardatz izanik, Euskal Herrian bizi diren hizkuntzekiko begirunezko-jarrera inklusiboa du. Eta badaki Euskal Herrian euskaraz gain beste bi hizkuntza direla nagusi: gaztelania eta frantsesa (Bidasoaren alde batean euskararekin batera frantsesa eta beste aldean, euskararekin batera gaztelera). Euskal Herrian bizitzeko, euskaraz gain, bigarren hizkuntza menperatu beharraz eta hirugarren batekiko gutxieneko hurbilpena izatearen beharraz jabetzen da. Mundu mailako hizkuntza transbertsala den ingelesaren garrantziaz ere kontziente da. "

BEREIZGARRIA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIA	DEFINIZIOA
BARNE SENDOTASUNA DUENA	Bere buruaz duen irudia bat dator benetan denarekin, bere ezaugarri eta izatearekin. Bere burua ezagutzea eta onartzea barne askatasuna eta heldutasun afektiboa lortzeko gako garrantzitsuak direla uste du. Horrek guztiak eta bere buruarenganako, besteenganako eta bizitzarenganako konfiantzak erresilientziaz erantzuten laguntzen diote bizitzak planteatzen dizkion erronka eta galdera nagusien aurrean.	Barne askatasuna duena	<p>Bere burua ezagutzen du (ezaugarriak, ahalmenak, beharrak eta mugak) eta honen irudi doitu duenez, gai sentitzen da besteen aurrean den bezalakoa izateko eta berari dagozkion erabakiak hartzeko, besteak aintzat hartuta baina haien mendeko bihurtu gabe.</p> <p>Bere bizitza proiektua eraikitzeko, bere bide propioa egiten du, eta horrek barrutik bakean uzten du, batzuetan jarrera horrek bakardadea eta ulertu ezina ekartzen badizkio ere.</p>
		Heldutasun afektiboa	<p>Momentu konkretuetan emozioak indar bereziaz pizten zaizkionean, emozioen kontzientzia nahiko argia dauka eta emozio horiek nola kudeatu ikasten ari delako badaki horiekiko beharrezko distantzia hartzen.</p> <p>Erresilientziaz erantzuten die egokitzen zaizkion egoera zailei; izan ere, onartu egiten du errealitatea, eta hortik ateratzen du indarra, egoera eta pertsona bakoitzari erantzun neurrizko eta egokia emateko.</p>
		Bere ongizatea zaintzen duena	<p>Bizitza orekatua izatearen garrantziaz jabetzen da (oreka emozionala eta mentala lortzeko lanketa pertsonala egitea, harreman sozialak eraiki eta zaintzea, neurriko jarduera fisikoa egitea, identitate digitala babestea, mundu digitaletik deskonektatzea, elikadura zaintzea, atseden hartzea...) eta modu arduratsuan jarduten du.</p>
		Konfiantza duena	<p>Konfiantza du bere buruarengan, besteengan, eta oro har, bizitzarengan eta akatsak ikasteko bide bezala ikusten ditu.</p> <p>Barne konfiantza hori duelako aurre egin nahi izaten die bere ardurapeko erronkei.</p> <p>Era berean, besteen gaitasunak ikusten eta baliosten ditu eta sentitzen du besteekin kontu dezakela aurrera eraman behar dituen eginkizun eta erronketarako.</p>

BEREIZGARRIA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIA	DEFINIZIOA
ERABAKITZAILE- EKINTZAILEA	Arazo eta egoeren aurrean konponbideak bilatzeko eta erabakiak hartzeko galderak egiten dituen, mundu digital honetan informazio iturri fidagarrietara jotzen duena, berau kudeatzen (aukeratu, partekatu, erregistratu, sortu...) duena eta kritikotasunez gogoeta egiten duena. Ausardiaz, arduraz eta konfiantzaz erabakiak hartzen dituen eta ekintzetan gauzatuko dituen. Azkenik, ekintzen ondorioak ebaluatzen eta hobekuntzak aurrera eramaten dituen.	Jakin-mina duena	Errealitatea ulertzeko eta etengabe ikasten jarraitzeko, galderak sortzen zaizkio eta galdera horiei erantzun ahal izateko informazioa bilatzeko prozesuetan aktiboki inplikatzeko da.
		Analitiko-kritikoa	Egoerak aztertzeko edota erabakiak hartzeko metodo zientifikoa erabiltzen du, informazioa eraginkortasunez eta zorrotasunez kudeatzen du, iturri eta informazioaren fidagarritasuna zainduz eta hortik bere iritzi propioa sortzen du. Hartutako erabakien inguruko azterketa egiten du eta beharrezko doikuntzak proposatzen ditu.
		Erresolutiboa	Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko konponbideak eraginkortasunez, ausardiaz (informazio guztia izan gabe, dituen arriskuen kontziente izanik...) eta erantzukizunez bilatzen eta ezartzen ditu, ikuspegi malgu eta irekiarekin.
ERALDATZAILEA	Giza duintasunaren, bere komunitatearen eta gizarte osoaren garapen justu, demokratiko eta iraunkorraren alde konprometitzen da, irtenbideak ikuspuntu desberdinetatik aztertuz, bide berriak urratuz.	Humanoa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala errespetatu eta defendatzen du (giza duintasuna, askatasuna, elkartasuna, justizia eta berdintasuna).
		Sortzailea	Momentuan sortu edota gizarteko egoerei lotutako arazo zein erronkei, irtenbide originalak emateko errealitatea ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du. Konbentzioetatik haratago, ohiz kanpoko eremu originaletara bide berriak urratzen ditu eta ideiak sortzen ditu.
		Solidarioa	Norbanakoaren, gizartearen edo ingurumenaren arazo, beharizan edo erronkez jabetzen da. Horiekiko konpromisoa agertzen du, ekarpen aktiboa eginez, beste norbaitek eskatuta edo gabe. Interes propioak soilik lehenetsi gabe jarduten du, elkarri lagunduz eta babestuz eta kooperazioan arituz.

BEREIZGARRIA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIA	DEFINIZIOA
KOOPERATIBOA	Arretaz entzuten du, elkarrizketa eraikitzailea bultzatzen du eta elkar ulertzeko eta helburu komuna lortzeko lan egiten du. Iritziak errespetatzen ditu eta aldi berean, bere iritzi propioak ematen ditu sortze prozesua aberasteko ekarpenak eginez, bakoitzak beretik emanez osotasun partekatua eraikitzea balio handikoa dela pentsatzen duelako. Komunikatzerakoan testuingurua eta hartzailea kontutan hartzen ditu.	Lankidetzan diharduena	Adostu eta partekatutako helburu bat lortzeko elkarrekintza eta gaitasun sozial eta kognitiboen garapena ezinbestekotzat jotzen ditu: taldekideetaz arduratzen da, bakoitzaren beharren arabera laguntza eskaintzen du eta bere beharrak asetzeko ere laguntza eskatzen du, taldekideen arteko konfiantza eraiki eta talde pertenezia sustatzeko.
		Erantzunkidea	Taldearen arrakasta norbanakoaren erantzunkizunaren baitan dagoela dio. Bakoitzak bere ardurak hartuz eta bere egitekoak betez ekoizpen aberatsago eta hobe lortuko dutela eta osotasunari erantzun ahal izango diotela ulertzen du.
		Enpatikoa	Aktiboki entzuten du, parekoak sentitzen duen emozioa jasoz eta ulertuz eta besteen emozioak epaitu gabe baldintzarik gabe onartzen ditu. Ez ditu errudunak bilatzen, kaltea edo sufrimendua eragiten duten ekintzen aurrean erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada.
		Komunikatzaile asertiboa	Modu sinesgarri eta eraginkorrean ematen ditu ezagutzera bere pentsamentu, ideia eta emozioak, zenbait komunikazio tresna eta lengoaia erabiliz eta testuingurua eta hartzailea kontutan hartuta. Horrez gain, uste du guztiok errespetua merezi dugula eta horregatik errespetuz komunikatzen da eta besteak ez mintzeko komunikazio estrategiak baliatzen ditu.
		Autoeratua	Autonomia indibidual bat dagoen moduan, autonomia kolektibo bat dagoela ulertzen du, autoeraketa, alegia; eta autonomia kolektiboa egon dadin autonomia indibiduala ezinbestekoa dela pentsatzen du. Autoraketak askatasuna, gaitasuna eta eraginkortasuna ematen dio taldeari bere burua antolatzeko, erabakiak hartzeko eta kudeatzeko.

PERTSONA EREDUA **INPAKTUAK**

BEREIZGARRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Euskalduna	Euskal hitzun osoa (kontzientea, koherentea eta konpetentea)	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Lehen hitza euskaraz egiten du edota euskaraz zuzentzen zaizkionean euskaraz egiten jarraitzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erregistro ezberdinak (euskara batua, formala-ez formala) ezagutzen ditu eta hein batean erabiltzen ditu. Lehen hitza euskeraz egiten du eta testuinguruak ahalbideratzen duenean, euskaraz egiten jarraitzen du. Euskara biziberritzeko dinamiketan parte hartzen du ikastolan eta herri mailan (Korrika, Euskaraldia, ...). Gutxitze egoeran dauden beste hizkuntza eta kulturak ezagutu eta bultzatzeko ikastolan antolatzen diren proiektutan parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erregistro ezberdinak (euskara batua, formala-ez formala) ezagutzen ditu eta hein batean erabiltzen ditu. Lehen hitza euskeraz egiten du eta testuinguruak ahalbideratzen duenean, euskaraz egiten jarraitzen du. Euskara biziberritzeko dinamiketan parte hartzen du ikastolan, herri mailan, ikastolen jaietan eta maila nazionalan (Euskaraldia, Euskarabentura, Korrika... esaterako). Gutxitze egoeran dauden beste hizkuntza eta kulturak ezagutu eta bultzatzeko ikastolan antolatzen diren proiektutan parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erregistro ezberdinak (euskara batua, formala-ez formala) ezagutzen ditu eta erabiltzen ditu. Lehen hitza euskeraz egiten du eta testuinguruak ahalbideratzen duenean, euskaraz egiten jarraitzen du. Euskara biziberritzeko dinamiketan aktiboki parte hartzen du ikastolan, herri mailan, ikastolen jaietan eta maila nazionalan (Euskaraldia, Euskarabentura, Korrika... esaterako). Gutxitze egoeran dauden beste hizkuntza eta kulturak ezagutu eta bultzatzeko ikastolan antolatzen diren proiektutan parte hartzen du.
		Ulermen inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Testuinguruaren arabera erregistro ezberdinak (formala-ez formala) erabili behar dituela ulertzen du. Euskaraz bizitzeko hautua egin beharra dagoela ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Testuinguruaren arabera erregistro ezberdinak (formala-ez formala) erabili behar dituela ulertzen du. Gaur egun euskaraz bizitzeko hautua egin beharra dagoela ulertzen du. Hizkuntza gutxituetako hiztunek hizkuntza hautuak egitearen garrantziaz jabetzen da. Euskara erabiltzen duen heinean, euskara eremu berrietara zabaltzen duela ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Testuinguruaren arabera erregistro ezberdinak (formala-ez formala) erabili behar dituela ulertzen du. Gaur egun euskaraz bizitzeko hautua egin beharra dagoela ulertzen du. Hizkuntza gutxituetako hiztunek hizkuntza hautuak egitearen garrantziaz eta hizkuntza politikan eragiteko beharraz jabetzen da. Euskara erabiltzen duen heinean, euskara eremu berrietara zabaltzen duela ulertzen du. 	
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Badaki hizkuntzek eta kulturek balio identitario eta soziala dutela eta ondorioz, sinisten du hiztunen erabaki eta hautuek euskararen erabileran eta hedapenean eta kulturaren zabalkundearen eragina dutela, eta horregatik, egunerokoan nagusiki euskaraz bizitzeko saiakera egiten du eta testuinguruak hala eskatzen duenean behar den erregistro eta hizkuntzara egokitzen da. 	

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Euskalduna	Euskal identitatea eta kultura ezagutu eta bizi dituen	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Kulturaren elementu ezberdinak identifikatzen ditu (ohitura, ospakizunak...) Euskal kultura eta ohituraren inguruko interesa erakusten du. Ikastolak bideratuta edota herri mailan, euskarari eta euskal kulturari lotutako ekimenetan (olentzero, santa ageda, inauteriak, euskal zinemagileak, euskal zientzialariak...) interesez parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal kultura eta identitatearen inguruko ezagutza erakusten du (lurraldetasuna, ohiturak, ...) Ikastolak bideratuta edota herri mailan, euskarari eta euskal kulturari lotutako ekimenetan (olentzero, santa ageda, inauteriak, zinemagileak, zientzialariak...) interesez parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal kultura eta identitatearen agerpen/ errepresentazio sinbolikoen inguruko ezagutza erakusten du lurraldetasun, ohitura eta ikuspegi historikotik. Euskara eta Euskal kulturari lotutako ekimenetan parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal kultura eta identitatearen agerpen/ errepresentazio sinbolikoen inguruko ezagutza erakusten du lurraldetasun, ohitura eta ikuspegi historikotik. Euskara eta Euskal kulturari lotutako ekimenetan aktiboki parte hartzeaz gain, horien antolaketa eta sorkuntza prozesuetan ere aritzen da.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du badela euskal kultura eta identitate sozial bat, euskara ardatz izanik, hainbat adierazpide eta errepresentazio sinbolikotan oinarrituta (ohitura, nazio-lurraldetasuna kontuan hartuta). 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du badela euskal kultura eta identitate sozial bat, euskara ardatz izanik, hainbat adierazpide eta errepresentazio sinbolikotan oinarrituta (historia, ohitura, nazio-lurraldetasuna kontuan hartuta) eta horiek gorde, biziberritu edota zabaltzeko konpromisoa erakusten du. Ulertzen du euskaldun izateko modu anitzak daudela eta euskaldun izateko bere modu propioa eraikitzen ari dela adierazten du. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du badela euskal kultura eta identitate sozial bat, euskara ardatz izanik, hainbat adierazpide eta errepresentazio sinbolikotan oinarrituta (historia, ohitura, nazio-lurraldetasuna kontuan hartuta) eta horiek gorde, biziberritu edota zabaltzeko konpromisoa erakusten du. Ulertzen du euskaldun izateko modu anitzak daudela eta euskaldun izateko bere modu propioa eraikitzen ari dela adierazten du.
		Marko mentala				

BEREIZGARRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Euskalduna	Eleaniztuna	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Ikastolako ikaste momentu bakoitzean baliatu behar den hizkuntza identifikatzen du eta ahal duen heinean komunikazio egoerari erantzuten dio. Ikastolan dagoen hizkuntza aniztasunaz ohartzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikastolako ikaste momentu bakoitzean dagokion hizkuntza erabiltzen du. Ikastolan dauden hizkuntza guztiekiko jarrera inklusiboa erakusten du interesa eta errespetua agertuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskalduntasunetik (hiztun osoa), testuinguru bakoitzari dagokion hizkuntza erabiltzen du. Ikastolan dauden hizkuntza guztiek bere tokia izan dezaten jarrera inklusiboa erakusten du, interesa eta errespetua agertuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskalduntasunetik (hiztun osoa), testuinguru bakoitzari dagokion hizkuntza erabiltzen du. Ikastolan dauden hizkuntza guztiek bere tokia izan dezaten jarrera inklusiboa erakusten du, interesa eta errespetua agertuz.
		Ulermen inpaktua			<ul style="list-style-type: none"> Euskararen haututik, hizkuntza guztiek betetzen duten funtzio sozialaz jabetzen da. Euskal Herrian bereziki euskara, gaztelania eta frantsesak betetzen dutenaz eta mundu mailan ingelesak betetzen duenaz, ikasi eta erabiltzearen arrazoia ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen haututik, hizkuntza guztiek betetzen duten funtzio sozialaz jabetzen da. Euskal Herrian bereziki euskara, gaztelania eta frantsesak betetzen dutenaz eta mundu mailan ingelesak betetzen duenaz, ikasi eta erabiltzearen arrazoia ulertzen du.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Badaki hizkuntzek eta kulturek balio identitario eta soziala dutela eta ondorioz, sinisten du hiztunen erabaki eta hautuek euskararen erabileran eta hedapenean eta kulturaren zabalkundearen eragina dutela, eta horregatik, egunerokoan nagusiki euskaraz bizi da eta testuinguruak hala eskatzen duenean behar den erregistro eta hizkuntzara egokitzen da.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Barne sendotasuna duena	Barne askatasuna duena	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> • Bere indargune eta hobetu beharrekoak identifikatzen ditu. • -Bere nahiak , gogoak eta beharrak adierazten ditu. • Besteen aurrean bere iritzia azaltzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ezaugarriak, ahalmenak, mugak eta beharrak identifikatzen ditu eta horrela adierazten du. • Bere erabakiak hartzen ditu, baita besteen nahiarekiko desberdina denean ere eta bere ikuspegia azaltzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ezaugarriak, ahalmenak, mugak eta beharrak identifikatzen ditu eta horrela adierazten du. • Bere erabakiak hartzen ditu, baita besteen nahiarekiko desberdina denean ere eta bere ikuspegia azaltzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ezaugarriak, ahalmenak, mugak eta beharrak sakon ezagutzen ditu eta horrela adierazten du. • Bere erabakiak hartzen ditu, baita besteen nahiarekiko desberdina denean ere eta bere ikuspegia azaltzen du.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du bere ezaugarriak, ahalmenak, mugak eta beharrak identifikatzeak lagundu egiten duela norberaren garapenean 	<ul style="list-style-type: none"> • Jabetzen da norberaren funtsezko izaera eta gaitasunak ezagutzea eta hauen arabera biziak, lagundu egiten duela norberaren garapenean eta biziak proiektua eraikitzen (ikasketak-zaletasunak-harreman... hautuak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Jabetzen da norberaren funtsezko izaera eta gaitasunak ezagutzea eta hauen arabera biziak, lagundu egiten duela norberaren garapenean eta biziak proiektua eraikitzen (ikasketak-zaletasunak-harreman... hautuak)
		Marko mentala				

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Barne sendotasuna duena	Heldutasun afektiboa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Egoera ezberdinen aurrean, oinarrizko emozioak identifikatzen ditu, izena jartzen die eta adierazten ditu. Emozioa erregulatzeko estrategiaren bat erabiltzen du helduaren laguntzaz. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki identifikatzen zer egoera emozional ari den bizitzen eta bizipen hori kudeatzeko ahalegina egiten du. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki identifikatzen zer egoera emozional ari den bizitzen eta zein maiztasunekin errepikatzen den eta bizipen hori kudeatzen saiatzen da Egoera konplexuetan, zailtan, ez du ihes egiten, ez du etsitzen, eta aurrera egiteko bideak eta moduak bilatzen saiatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki identifikatzen zer egoera emozional ari den bizitzen eta zein maiztasunekin errepikatzen den eta bizipen hori kudeatzen saiatzen da. Egoera konplexuetan, zailtan, ez du ihes egiten, ez du etsitzen, eta aurrera egiteko bideak eta moduak bilatzen saiatzen da.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Jabetzen da bere emozioak identifikatzea, izendatzea, ulertzea eta kudeatzea beharrezkoa dela horiek bere bizitza gidatu ez dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du bere emozioak identifikatzea, izendatzea, ulertzea eta kudeatzea beharrezkoa dela horiek bere bizitza gidatu ez dezaten eta ulertzen du kudeatzea kostatzen zaion horietan arreta jartzeak, bere garapenean aurreratzeko aukera ematen diola. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du bere emozioak identifikatzea, izendatzea, ulertzea eta kudeatzea beharrezkoa dela horiek bere bizitza gidatu ez dezaten eta ulertzen du kudeatzea kostatzen zaion horietan arreta jartzeak, bere garapenean aurreratzeko aukera ematen diola.
		Marko mentala				
	Bere ongizatea zaintzen duena	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Ohitura osasuntsuak (alderdi fisikoari, mentalari eta sozialari dagozkionak) hartzen hasi da. 	<ul style="list-style-type: none"> Ohitura osasuntsuak (alderdi fisikoari, mentalari eta sozialari dagozkionak) erantzukizunez hartzen hasi da. 	<ul style="list-style-type: none"> Ohitura osasuntsuak (alderdi fisikoari, mentalari eta sozialari dagozkionak) erantzukizunez hartzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ohitura osasuntsuak (alderdi fisikoari, mentalari eta sozialari dagozkionak) erantzukizunez hartzen ditu.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen hasi da bere ongizaterako beharrezkoa dela ohitura osasuntsuak mantetzea eta horretarako hautu pertsonala egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du bere ongizaterako beharrezkoa dela ohitura osasuntsuak mantetzea eta egindako hautuak azaltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du bere ongizaterako beharrezkoa dela ohitura osasuntsuak mantetzea eta egindako hautuak arrazoitzen ditu.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Sinisten du funtsezkoa dela norbere autoezagutzan eta garapenean sakontzea norbere bizitza proiektua garatzeko, eguneroko errealitateari erantzuteko eta une zailak kudeatzeko. Horretarako pertsonaren dimentsioak ezagutzen ditu eta horien zaintza zein kudeaketarako uneak eskaintzen dizkio bere buruari.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 URTE)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Barne sendotasuna duena	Konfiantza duena	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Bere buruarengan duen konfiantzatik, egunerokotasunean sortzen zaizkion zailtasun, egoera, arazo edota erronka ezberdinei aurre egiten die. 	<ul style="list-style-type: none"> Bere buruarengan duen konfiantzatik erantzuten die bere ardurapekoak diren erronkei. Besteen gaitasunak onartu eta baliosten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Bere buruarengan duen konfiantzatik erantzuten die bere ardurapekoak diren erronkei. Besteen gaitasunak baliosten ditu eta adierazten du besteekin kontaktzen duela aurrera eraman behar dituen eginkizun eta erronketarako. Ondorioz, zereginak haien esku uzten badaki, guztion akatsak onartu eta baliatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Bere buruarengan duen konfiantzatik erantzuten die bere ardurapekoak diren erronkei. Besteen gaitasunak baliosten ditu eta adierazten du besteekin kontaktzen duela aurrera eraman behar dituen eginkizun eta erronketarako. Ondorioz, zereginak haien esku uzten badaki, guztion akatsak onartu eta baliatuz.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du garrantzitsua dela norberaren eta besteen gaitasunetan konfiantza izatea harremanak osasuntsuagoak izateko eta erronkei erantzuteko. Ulertzen du akatsak ikas prozesuaren parte direla eta aukera moduan ikusten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du norberarenganako eta besteenganako konfiantza direla harreman eta proiektu ororen euskarri nagusiak. Onartzen du, halaber, konfiantza urria denean, ez harremana eta ez proiektua ez direla garatzen bere dimentsio eta potentzialtasun osoan. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du norberarenganako eta besteenganako konfiantza direla harreman eta proiektu ororen euskarri nagusiak. Onartzen du, halaber, konfiantza urria denean, ez harremana eta ez proiektua ez direla garatzen bere dimentsio eta potentzialtasun osoan.
		Marko mentala				

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Erabakitzaile ekintzailea	Jakinmina duena	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Jakinmina asetzeko galderak egiten ditu, behatu egiten du eta esperimintatu egiten du. 	<ul style="list-style-type: none"> Jakinmina asetzeko galdera irekiak eta pertinenteak egiten ditu. Asebetetzen duen erantzuna bilatzeko, behatu eta esperimintatu egiten du, eta hainbat iturri erabiltzen hasi da. 	<ul style="list-style-type: none"> Jakinmina asetzeko galdera irekiak eta pertinenteak egiten ditu Asebetetzen duen erantzun sakon eta osatua bilatzeko, behatu eta esperimintatu egiten du, eta askotariko iturriak erabiltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Testuinguru konplexuen aurrean sortzen zaion jakinmina asetzeko galdera irekiak eta pertinenteak egiten ditu Asebetetzen duen erantzun sakon eta osatua bilatzeko, behatu eta esperimintatu egiten du, eta askotariko iturriak erabiltzen ditu.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ingurua eta norbere burua ulertzeko zein erronka berriei ekiteko, behatzea, esperimintatzea, galderak egitea eta zalantzak argitzea garrantzitsua dela ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Argudiatzen du ingurua ulertzeko eta erronka berriei ekiteko, errealitatearen pertzeptzioa zalantzan jartzea eta sortzen zaizkion galderak erantzutea beharrezkoa dela. 	<ul style="list-style-type: none"> Argudiatzen du ingurua ulertzeko eta erronka berriei ekiteko, errealitatearen pertzeptzioa zalantzan jartzea eta sortzen zaizkion galderak erantzutea beharrezkoa dela.
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ulertzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ulertzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola.
	Analitiko-kritikoa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Iturri ezberdinak arakutzen ditu ingurukoan laguntzaz. Gertuko egoerak ulertzeko zenbait pentsamendu analitikoaren estrategiak (saikatu, konparatu...) erabiltzen ditu. Informazio berria jaso ondoren, hartutako erabakien eta egindako hipotesien moldaketak proposatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Edozein informazioaren fidagarritasuna aztertzen du eta analisi horretatik (identifikatu, deskribatu, erlazionatu, interpretatu, sintetizatu, baloratu, arrazoitu, ondorioak atera...) abiatuta bere iritzia eraikitzen du argudioak emanez. 	<ul style="list-style-type: none"> Edozein informazioaren fidagarritasuna eta objektibotasuna aztertzen ditu eta ebidentzietan oinarritutako analisi horretatik (identifikatu, deskribatu, erlazionatu, interpretatu, sintetizatu, baloratu, arrazoitu, ondorioak atera...) abiatuta bere iritzia eraikitzen du argudioak emanez. 	<ul style="list-style-type: none"> Edozein informazioaren fidagarritasuna eta objektibotasuna aztertzen ditu eta ebidentzietan oinarritutako analisi horretatik (identifikatu, deskribatu, erlazionatu, interpretatu, sintetizatu, baloratu, arrazoitu, ondorioak atera...) abiatuta bere iritzia eraikitzen du argudioak emanez.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Azaldu eta argudiatzen du norbere iritzia eraikitzea garrantzitsua dela, eta horretarako informazio-iturriak arakatu behar direla fidagarriak diren horiek hautatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaldu eta argudiatzen du norberaren iritzia eraikitzea garrantzitsua dela, eta horretarako askotariko informazio-iturri fidagarriak eta ebidentzia zientifikoak hautatu behar direla. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaldu eta argudiatzen du norberaren iritzia eraikitzea garrantzitsua dela, eta horretarako askotariko informazio-iturri fidagarriak eta ebidentzia zientifikoak hautatu behar direla.
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ezagutzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ezagutzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Erabakitzaile ekintzailea	Erresolutiboa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko konponbideak bilatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Egoera-arazo-erronkei aurre egiten die konponbide eraginkorrena hautatuz eta gauzatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Egoera-arazo-erronkei aurre egiten die konponbide eraginkorrena hautatuz eta gauzatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Egoera-arazo-erronkei aurre egiten die konponbide eraginkorrena hautatuz eta gauzatuz.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du zenbait egoerei aurre egiteko eskura dagoen konponbide eraginkorrena aurrera eramatea lehenetsi behar dela perfektua ez bada ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du zenbait egoerei aurre egiteko eskura dagoen konponbide eraginkorrena aurrera eramatea lehenetsi behar dela perfektua ez bada ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du zenbait egoerei aurre egiteko eskura dagoen konponbide eraginkorrena aurrera eramatea lehenetsi behar dela perfektua ez bada ere.
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ezagutzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki bizitzan zehar etengabe erabakiak hartu beharko dituela eta horretarako, ingurunea ezagutzeak, agertzen diren egoerak kritikotasunez aztertzeak eta arazoan aurrean konponbideak bilatzeak lagundu egingo diola.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Eraldatzailea	Humanoa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Norbanakoen edota taldeen desberdintasunak onartzen ditu. Injustizia egoerak identifikatzen ditu eta bere inguru gertukoenetan esku hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> -Norbanakoen edo/eta taldeen desberdintasunak onartzen ditu. Injustizia egoerak identifikatzen ditu eta bere inguru gertukoenetan esku hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Norbanakoen edo/eta taldeen desberdintasunak onartzen ditu. Desberdintasunek eragindako injustizia egoeren aurrean esku hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Norbanakoen edo/eta taldeen desberdintasunak onartzen ditu. Desberdintasunek eragindako injustizia egoeren aurrean esku hartzen du.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du desberdinak izanda ere, denok ditugula eskubide berdinak (giza eskubideak) eta ezin dela injustiziarik onartu sexu, genero,... edo ideia politiko edo erlijiosoengatik. 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki giza eskubideetan oinarritutako printzipioak garrantzitsuak direla eta ulertzen du giza duintasunaren errespetuaren gaitetik, ez dela lehenetsi behar inongo injustiziarik (sexu, genero, ...) edo ideia politikorik, erlijiosorik... 	<ul style="list-style-type: none"> Badaki giza eskubideetan oinarritutako printzipioak balio absolutu eta unibertsalak direla eta ulertzen du giza duintasunaren errespetuaren gaitetik, ez dela lehenetsi behar inongo injustiziarik (sexu, genero, ...) edo ideia politikorik, erlijiosorik...
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Uste du mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin, elkartasunez jardun beharra dagoela, ideia original eta irtenbide berriak sortuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Uste du mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin, elkartasunez jardun beharra dagoela, ideia original eta irtenbide berriak sortuz.
	Sortzailea	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Idea berriak bururatzen zaizkio 	<ul style="list-style-type: none"> Konbentzioetatik harago doazen ideia berri eta originalak proposatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Konbentzioetatik harago doazen ideia berri eta originalak proposatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Konbentzioetatik harago doazen ideia berri eta originalak proposatzen ditu.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen eta azaltzen du, ideia berri eta originalak proposatzea lagungarria dela egoerei edo erronkei hobeto erantzuteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du konponbide originalak eta ohiz kanpokoak proposatzea lagungarria dela egoerei edo erronkei hobeto erantzuteko, eta ideia hauek bat batean sortzen ez direnez, saiatu egin behar dela. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du konponbide originalak eta ohiz kanpokoak proposatzea lagungarria dela egoerei edo erronkei hobeto erantzuteko, eta ideia hauek bat batean sortzen ez direnez, saiatu egin behar dela.
		Marko mentala			<ul style="list-style-type: none"> Uste du mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin, elkartasunez jardun beharra dagoela, ideia original eta irtenbide berriak sortuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Uste du mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin, elkartasunez jardun beharra dagoela, ideia original eta irtenbide berriak sortuz.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Eraldatzailea	Solidarioa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> • Inguruko arazo edo beharriaren aurrean bere laguntza eskaintzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu egiten da bere gaitasunak eta denbora eskainiz, beste norbaitek eskatzen dionean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu egiten da bere gaitasunak, denbora eta bestelako baliabideak eskainiz, beste norbaitek eskatuta edo gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu egiten da bere gaitasunak, denbora eta bestelako baliabideak eskainiz, beste norbaitek eskatuta edo gabe.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen eta azaltzen du bizitzan zehar denok elkarren beharra izango dugula eta pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu beharra dagoela gutako bakoitzarengan badagoelako erantzunkizunaren zati bat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Argudiatzen du bizitzan zehar denok elkarren beharra izango dugula eta pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu beharra dagoela gutako bakoitzarengan badagoelako erantzunkizunaren zati bat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Argudiatzen du bizitzan zehar denok elkarren beharra izango dugula eta pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrian edo erronken aurrean konprometitu beharra dagoela gutako bakoitzarengan badagoelako erantzunkizunaren zati bat.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> • Uste du mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin, elkartasunez jardun beharra dagoela, ideia original eta irtenbide berriak sortuz.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Kooperatiboa	Lankidetzan diharduena	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Taldearen eginkizun baten aurrean ekarpenak egiten ditu, behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Taldearen eginkizun baten aurrean trebetasun sozialez baliatzen da (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...) 	<ul style="list-style-type: none"> Taldearen eginkizun baten aurrean trebetasun sozialez baliatzen da (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...) 	<ul style="list-style-type: none"> Taldearen eginkizun baten aurrean trebetasun sozialez baliatzen da (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...)
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzan aritzeko elkar zaintzea garrantzitsua dela pentsatzen du eta horretarako trebezia sozialez baliatu behar dela (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...) Taldekideekin elkarrekintzan, ikaste prozesu zein ekoizpen aberatsagoak lortzen direla ulertzen du, nahiz eta badakien zailtasunak ere sor daitezkeela. 	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzan aritzeko elkar zaintzea garrantzitsua dela pentsatzen du eta horretarako trebezia sozialez baliatu behar dela (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...) Taldekideekin elkarrekintzan eta lanean jarduten du bakarka egitea baino motibagarriagoa delako eta ikaste prozesu zein ekoizpen aberatsagoak lortzen direla ulertzen duelako, nahiz eta badakien zailtasunak ere sor daitezkeela. 	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzan aritzeko elkar zaintzea garrantzitsua dela pentsatzen du eta horretarako trebezia sozialez baliatu behar dela (ekarpenak egiten ditu, taldekideetaz arduratzen da eta behar denean laguntza eskaini eta eskatzen du...) Taldekideekin elkarrekintzan eta lanean jarduten du bakarka egitea baino motibagarriagoa delako eta ikaste prozesu zein ekoizpen aberatsagoak lortzen direla ulertzen duelako, nahiz eta badakien zailtasunak ere sor daitezkeela.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Sinisten du taldean bakarka baino urrunago heltzen garela, taldean jardutea, gainera, pertsonen berezko jokabidea dela; eta autoeraketa dela antolatze modurik egokiena norbere proiektua (pertsonala zein taldekoa) aurrera eramateko. Eta horretarako, erantzunkidetasunez, enpatiaz eta asertibotasunez jokatu beharra dagoela.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Kooperatiboa	Erantzunkidea	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> • Ardurak banatzen parte hartzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen beharrak identifikatzen eta ardurak banatzen parte hartzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen beharrak identifikatzen eta ardurak banatzen parte hartzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen beharrak identifikatzen eta ardurak banatzen parte hartzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du taldearen arrakastarako ezinbestekoa dela nork bere egitekoak betetzea. • Adierazten du taldekide guztien erantzukizuna dela taldekide bakoitzak aurrera egin dezan bermatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du taldearen arrakastarako ezinbestekoa dela nork bere egitekoak betetzea. • Adierazten du taldekide guztien erantzukizuna dela taldekide bakoitzak aurrera egin dezan bermatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du taldearen arrakastarako ezinbestekoa dela nork bere egitekoak betetzea. • Adierazten du taldekide guztien erantzukizuna dela taldekide bakoitzak aurrera egin dezan bermatzea.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> • Sinisten du taldean bakarka baino urrunago heltzen garela, taldean jardutea, gainera, pertsonen berezko jokabidea dela; eta autoeraketa dela antolatzeko modurik egokiena norbere proiektua (pertsonala zein taldekoa) aurrera eramateko. Eta horretarako, erantzunkidetasunez, enpatiaz eta asertibotasunez jokatu beharra dagoela.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Kooperatiboa	Enpatikoa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Gertuko pertsonen hitz eta gorputz adierazpenetan erreparatuz, besteen egoera emozionalean arreta jartzen du. Gatazken aurrean, eragindako kaltearen konponbidea bilatzen saiatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Hitzez zein jarrerazko ekintzen bitartez (aurpegi eta gorputz-adierazpenak) bestearekin konektatzea bilatzen du. Gatazken aurrean konponbidea bilatzen eta onartzen saiatzen da eta bere erantzukizuna hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Hitzez zein jarrerazko ekintzen bitartez (aurpegi eta gorputz-adierazpenak) bestearekin konektatzea bilatzen du. Gatazken aurrean ez du errudunik bilatzen, erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada. 	<ul style="list-style-type: none"> Hitzez zein jarrerazko ekintzen bitartez (aurpegi eta gorputz-adierazpenak) bestearekin konektatzea bilatzen du. Gatazken aurrean ez du errudunik bilatzen, erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du kaltea edo sufrimendua eragiten duen egoera baten aurrean, egon badagoela arrazoi bat eta horregatik errudunak bilatu beharrean konponketan begirada jartzen saiatzen da. Ulertzen du bizikidetzarako, besteak epaitu gabe entzun eta ulertu behar direla. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du kaltea edo sufrimendua eragiten duen egoera baten aurrean, egon badagoela arrazoi bat asetu gabeko behar bati lotua eta horregatik errudunak bilatu beharrean konponketan jartzen du begirada. Ulertzen du bizikidetzarako eta harreman sendoagoak eta aberasgarriagoak izateko, besteak epaitu gabe entzun eta ulertu behar direla. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du kaltea edo sufrimendua eragiten duen egoera baten aurrean, egon badagoela arrazoi bat asetu gabeko behar bati lotua eta horregatik errudunak bilatu beharrean konponketan jartzen du begirada. Ulertzen du bizikidetzarako eta harreman sendoagoak eta aberasgarriagoak izateko, besteak epaitu gabe entzun eta ulertu behar direla.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Sinisten du taldean bakarka baino urrunago heltzen garela, taldean jardutea, gainera, pertsonen berezko jokabidea dela; eta autoeraketa dela antolatze modurik egokiena norbere proiektua (pertsonala zein taldekoa) aurrera eramateko. Eta horretarako, erantzukidetasunez, enpatiaz eta asertibotasunez jokatu beharra dagoela.

BEREIZGA- RRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Kooperatiboa	Komunikatzaile asertiboa	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Taldeko elkarrekintzak eragin dizkion sentimenduak adierazten ditu eta helduaren laguntzarekin horiei loturiko beharrak eta eskaerak identifikatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioaren xedea eta hartzaila kontuan hartuz, bere ideia, behar, emozio eta iritziak adierazten ditu, besteak ez mintzeko komunikazio-estrategiak (hitzezkoak, ez hitzezkoak eta ahotsari lotutakoak) baliatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioaren xedea eta hartzaila kontuan hartuz, bere ideia, behar, emozio eta iritziak, besteak ez mintzeko komunikazio-estrategiez (hitzezkoak, ez hitzezkoak eta ahotsari lotutakoak) eta estiloak (zintzoa, irekia, zuzena, gertukoa, ez bortitza, ...) baliatuz adierazten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioaren xedea eta hartzaila kontuan hartuz, bere ideia, behar, emozio eta iritziak, besteak ez mintzeko komunikazio-estrategiez (hitzezkoak, ez hitzezkoak eta ahotsari lotutakoak) eta estiloak (zintzoa, irekia, zuzena, gertukoa, ez bortitza, ...) baliatuz adierazten ditu.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du bere ideia, behar, emozio eta iritziak adierazteko, besteak errespetatzen dituzten komunikazio-estrategiak erabiltzea garrantzitsua dela horri esker konfiantza giroa sortzen delako eta komunikazioa bera eraginkorragoa bihurtzen delako. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du bere ideia, behar, emozio eta iritziak adierazteko, besteak errespetatzen dituzten komunikazio-estrategiak eta estiloak erabiltzea garrantzitsua dela, horri esker konfiantza giroa sortzen delako eta komunikazioa bera eraginkorragoa bihurtzen delako. 	<ul style="list-style-type: none"> Ulertzen du bere ideia, behar, emozio eta iritziak adierazteko, besteak errespetatzen dituzten komunikazio-estrategiak eta estiloak erabiltzea garrantzitsua dela, horri esker konfiantza giroa sortzen delako eta komunikazioa bera eraginkorragoa bihurtzen delako.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Sinisten du taldean bakarka baino urrunago heltzen garela, taldean jardutea, gainera, pertsonen berezko jokabidea dela; eta autoeraketa dela antolatze modurik egokiena norbere proiektua (pertsonala zein taldekoa) aurrera eramateko. Eta horretarako, erantzunkidetasunez, enpatiaz eta asertibotasunez jokatu beharra dagoela.

BEREIZGARRIAK	EZAUGARRIA	INPAKTU MOTA	ETAPA AMAIERAKO INPAKTUAK			
			HAUR HEZKUNTZA (6 urte)	LEHEN HEZKUNTZA (12 urte)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (16 urte)	BATXILERGOA (18 urte)
Kooperatiboa	Autoeratua	Jokabidezko inpaktua	<ul style="list-style-type: none"> Helburu jakin bat lortzeko taldean antolatzen dira eta eskura dituzten baliabide eta estrategiak baliatzen dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> Helburu jakin bat lortzeko taldean antolatzen dira, beharrezko ekintzak planifikatzen dituzte eta eskura dituzten baliabide eta estrategiak baliatzen dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> Helburu jakin bat lortzeko taldean antolatzen dira, beharrezko ekintzak planifikatzen dituzte eta beharrezko baliabide eta estrategiak baliatzen dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> Helburu jakin bat lortzeko taldean antolatzen dira, beharrezko ekintzak planifikatzen dituzte eta beharrezko baliabide eta estrategiak baliatzen dituzte.
		Ulermen inpaktua		<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du autoeratzeko taldeari eraginkortasuna ematen diola helburua lortzeko beste inoren zain egon gabe, eta ulertzen du horrek guztiak, era berean, erantzunkizuna eta konpromisoa dakartzala. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du autoeratzeko taldeari askatasuna, gaitasuna eta eraginkortasuna ematen dizkiola nahi duen hori lortzeko beste inoren zain egon gabe, eta ulertzen du horrek guztiak, era berean, erantzunkizuna eta konpromisoa dakartzala. 	<ul style="list-style-type: none"> Azaltzen du autoeratzeko taldeari askatasuna, gaitasuna eta eraginkortasuna ematen dizkiola nahi duen hori lortzeko beste inoren zain egon gabe, eta ulertzen du horrek guztiak, era berean, erantzunkizuna eta konpromisoa dakartzala.
		Marko mentala				<ul style="list-style-type: none"> Sinisten du taldean bakarka baino urrunago heltzen garela, taldean jardutea, gainera, pertsonen berezko jokabidea dela; eta autoeraketa dela antolatze modurik egokiena norbere proiektua (pertsonala zein taldekoa) aurrera eramateko. Eta horretarako, erantzunkidetasunez, enpatiaz eta asertibotasunez jokatu beharra dagoela.